

KANALAK:

Salmenta kanala:

Gure denda

Kanal zuzena erabiliko dugu, internet bidezko oline salmenta. Denda bat sortuko dugu online eta gehien bat bertatik salduko dugu gure produktua. Denda online izango den arren, biltegi eta bulego bat izango ditugu.



Kanpo harremanak

Sortutako online dendatik, herri desberdinetako saltokietara banatuko dugu gure produktua. Saltoki horiek, produktu osagarriak saltzen dituzten motakoak izango dira gehienbat. Bestalde, gure bezeria gazteetan eta kirola ohituztat duten pertsonengan bideratzen denez, kirol dendetara ere zabaldua izango da.

Komunikazio kanala:

Bloga

Blog bat egingo dugu, non gure produktua ezagutzera emango dugun. Gainera, enpresaren hastapenak azalduko ditugu bertan, baita gure historia kontatu ere, beraiengana hurbiltzeko.



Sare sozialak

Gaur egun sare sozialek erabilera handia dute gazteen artean. Hori dela eta, gehien erabiltzen direnetan (Instagram, Twitter, gure bloga...) gure produktuari publizitatea egingo diogu (jende ezagunaren profiletan eta baita gurean ere), jende gehiagorengana iristeko eta erosteko grina sortzeko. Horretarako, argazkiak eta bideo desberdinak igoko ditugu aterkiaren funtzionamendua nolakoa den erakusteko.



Gainera, bezeroenganako pertzepzioa sortzeko promozioak, deskontuak, zozketak, etb. egingo ditugu.

Banaketa kanala:

Banaketa aurrera eramateko garraioa

Produktua saltoki desberdinetara banatu ahal izateko gure enpresatik at dagoen mezularitza zerbitzu bat kontratatu behar izango dugu. Enpresa horrek gure produktua ekoizten den lekutik salmenta tokietara eramango du furgoneta edo auto baten bidez.

